

# Galderak eta Erantzunak



## 1. Nola eman dezaket izena Barakaldo Kirolaken?

Barakaldo Kirolaken izena emateko beharrezkoa da Lasesarre edo Goroztitzako kiroldegietako harrera-lekura joatea eta, bertan, dagokion izen-emateko dokumentua bete eta sinatu beharko da (abonatu gisa alta emateko eskaera-dokumentua).

Greba-egoerak bere horretan jarraitzen badu, zerbitzu guztiak ohikotasunez ematen direnean ordainduko da kuota.

Barakaldo Kirolakeko kuotak ez dira abonuen edo kurtsoen arabera ordainduko, baizik eta emandako zerbitzuari dagokion zati proportzionalaren arabera.

## 2. Nola berritu dezaket Barakaldo Kirolaken abonua?

- Hiru hileko edo sei hileko abonua izanez gero: Beharrezkoa da izapidea Lasesarre edo Goroztitzako kiroldegietako harrera-lekuan egitea eta dagokion izen-emateko dokumentua betetzea eta sinatzea (Abonatu gisa alta emateko eskaera-dokumentua).

- Urteko abonua helbideratuta izanez gero: Emandako zerbitzuari dagokion zati proportzionalaren ordainketa helbideratuko da, zerbitzu hori ohikotasunez ematen denean.

- Urteko abonua helbideratuta ez izanez gero: Greba-egoera amaitu ondoren dagokion ordainagiriaren ordainketa egingo da, eta zenbatekoa emandako zerbitzuari dagokion zati proportzionalaren arabera izango da.

## 3. Nola eman dezaket baja Barakaldo Kirolaketik edo beste zerbitzuetatik?

Baja idatziz egin beharko da, posta elektronikoko bidez (olasesarre@barakaldokirolak.eus) edo aurrez aurre, baja-dokumentua betez eta sinatuz.

## 4. Zer hartzen da ez ordaindutzat?

Barakaldo Kirolakeko zerbitzu bat erreserbatu edo erabili bada eta dagokion ordainagiria bueltatu edota epe barruan ordaintzen ez bada, ez ordaintze egoera emango da eta ezin izango da Barakaldo Kirolakeko ezein zerbitzu erabili.

## 5. Nola eman dezaket izena Barakaldo Kirolakeko igeriketa-ikastaro batean?

Beharrezkoa da Lasesarre edo Goroztitzako kiroldegietako harrera-lekuetara joatea, horretarako ezarritako epean, eta bertan aurretiazko izen-ematea izapidetu beharko da.

Dagoeneko plaza bat esleitu bazaizu baina ikastaro hori greba-egoeraren eragina jasan badu, plaza hori hurrengo ikasturterako gordeko da.

## 6. Nola eman dezaket izena kirol-jardueren ikastaro batean?

Izen-ematea urte osoan zehar egin ahal izango da Lasesarre edo Goroztitzako kiroldegietako harrera-lekuetan. Eskatutako ikastaroa beteta egonez gero, itxaron-zerrendan sartu eta plaza libratzen denean abisatuko zaizu.